


Kaukasoar iritsi berriak



**NAGORE
IRAZUSTABARRENA
URANGA**

Gottingen (Alemania), 1775. Johann Friedrich Blumenbach antropologo gazteak lehenengoz erabili zuen “kaukasoar” hitza azal zuriko gizakiak deskribatzeko. *De generis humani varietate nativa* lanean, hainbat jatorritako garezurrak aztertu ondoren, alemaniarrek bost giza arraza bereizi zituen: etiopiarrek edo beltzak; mongoloideak edo horiak; malaysiarrek edo marroiak; amerikarrak edo gorriak; eta kaukasoarrak edo zuriak.

Blumembachek uste zuen arraza in-doeuroparrak Kaukaso inguruan zuela jatorria. Horregatik aukeratu zuen Georgia inguruko garezur bat prototipo gisa, eta horregatik erabaki zuen “kaukasoar” hitza erabiltzea arraza hori deskribatzeko.

Johann Blumenbachen alde esan

behar da garbi adierazi zuela bere ustez arrazen artean ez zegoela hierarkiarik, bata ez zela bestea baino hobea. Hau da, berea ondorio zientifiko hutsa zela, osagai sozial edo etikorik ez zeukana. Baina, batetik, berea bezalako ikerlanak arrazakeria justifikatzeko erabili izan dira luzaroan, egileak bestelako asmoak izan arren. Eta, bestetik, bere lanaren oinarria zientifikoki okerra zen, egun bai baitakigu giza arrazarik ez dagoela.

Gainera, azken urteotako ikerlanek agerian utzi dute azal zuria uste baino ezaugarri askoz berriagoa dela. 2014an Leongo (Espainiako Estatu) La Braña aztarnategiko Mesolitoko giza arrasto batzuen genoma sekuentziatzea lortu zuten, eta duela 7.000 urteko gizaki hura azal iluneko zela ondorioztatu. Horrek esan nahi

du egokitze genetiko Neolitoan gertatu zela, nekazaritzak dietan, metabolismoan eta immunitatean eragindako aldaketek ahalbidetu zutela egokitze genetiko hura. Hortaz, duela 14.000-13.000 urte Ekaingo hormak margotu zituzten gizakiak, esaterako, ez ziren zuriak edo kaukasoarrak.

Eta, hala ere, Blumenbachek aukeratu-tutako hitza asko erabiltzen da. AEBetan azal zuriko gizabanakoak deskribatzeko termino ofiziala da, kaukasoar eta afroamerikar esatea zuzenagoa baita, nonbait, zuria edo beltza esatea baino. Eta handik etorritako albiste, film edo telesailetan etengabe errepikatzen da.

Hala, “kaukasoar” hitza “zuria” esateko modu politikoki zuzena bihurtu da, jatorrian arrazista eta, gainera, zientifikoki okerra den arren. ●



1775ean, Johann F. Blumenbach (1752-1840) antropologoak bost giza arraza bereizi zituen garezurraren arabera, eta “kaukasoar” hitza erabili zuen horietako bat deskribatzeko.

WELLCOME COLLECTION



GRANADAKO UNIBERTSITATEA

Hezur berriak historiaurreko hilobian

Granadako (Espainiako Estatu, Andaluzia) Panoria nekropolian duela 5.600-4.000 urteko 19 hilobi aurkitu dituzte orain arte. Baina 2019an aurkikuntza bixia egin zuten 15. hilobian: K.o. V. mendean bizi izan zen emakume gazte baten garezurra, humeroa eta tibia. *Journal of Archeological Science* aldizkarian argitaratu berri den ikerlanak ez du argitzen 2.500 urte berriagoak diren hezurrik

zergatik utzi zituzten historiaurreko nekropolian. Baina Margarita Sánchez Romero arkeologoak argitu du erromatar garaia amaietan bizi izan zen emakumea ez zutela hil eta berehala ehortzi –gorpua eskeletizatua baitzegoen han ehortzi zutenean–, eta “Panoriak toki sakratu gisa zeukan garrantzia” adierazten dutela hezur horiek, memoria kolektiboan luzaroan iraun zuelako. ●